



Euskara eta informatika

Informatikan, beste alor askotan gertatzen den bezalaxe, ingelesa dugu hizkuntza nagusia, baina gaztelarak eta frantsesak ere badute bere lekutxoak. Aipatu hiru hizkuntzek, nahiz eta beraien artean desberdinak izan, antzekotasun gramatikal handiak dituzte. Euskararen kasua erabat bestelakoa da eta hortaz, ia ezi-nezkoa gertatzen da beste hizkuntzetan garatutako oinarri gramatikal-informatikoak euskararentzat aplikatzea. Ikerketa-alor espezifikoak behar du euskarak eta ildo horretako lehen oinarriak Klaudio Harluxet zenak ezarri zituen. Gaur egun, Harluxetek pentsatutakoa hasi da produktu praktikoetan gauzatzen; "Xuxen" izeneko zuzentzaile ortografikoa horren adibide dugu.